

ataria

2020-05-15 • 1.239. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus


Edurne Pasaban, gailurrak gogoan





AURKIBIDEA

- Iritzia** Jone Amonarriz **3**
Sapere Aude Ane Amundarain **8-9**
Asteko Gaia Edurne Pasaban **10-17**
Begirada Grafikoa
 Jon Ander Artola **18**
Iritzia Ion Mintegiaga **20**
Iritzia Olatz Peñagarikano **21**
Bertsoak Andriu, Iker Iriarte eta
 Txomin Azpiroz **22-23**
Olerkia Igor Estankona **24**
Elkarrizketa
 Josu Lopez-Gazpio **26-28**



Azaleko irudia
 ATARIA

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiaz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





JONE AMONARRIZ
KOMUNIKAZIO
TEKNIKARIA

Txertoa

Lehendik ere milaka pertsona ari ziren hiltzen mundu osoan egunero: gerretan, gerratik ihesean, itsasoan, goseak, gaixorik, bere buruaz beste egin da, bortxatuta, minbiziarekin, lan istripuetan... Baina epidemia honek pertsonon heriotzak eragiteaz gain, sistema bera ere zauritu du eta zirrikitu guztiak xteko ahaleaginean, handik eta hemendik ari dira injektatzen beldurra gure gorputzetan.

Naomi Klein kazetari eta aktibista kanadarraren *The Shock Doctrine* —Shock-aren doktrina— ekarri du askoren gogora koronabirusak, hain justu birusa bera aitzakia perfektua delako sistemarentzat hondamendi honen harira gizartean *shock* egoera bat sortu eta interesatzen zaizkion neurriak hartzeko, izen bereko liburuak zein dokumentalak historiako hainbat pasarteren bidez erakusten duen bezala. Horrek bai eragin beharko ligukeela izua.

Covid19-aren ondorioei immunitatea dien gutxi batzuk dira «normalitate berria» ezarriz finean ezer aldatu nahi ez dutenak. Ostera, modu batera zein bestera, osasun krisia inflexio puntu izaten ari da, zentzu eta sektore guztietan. Lehengo normaltasuna zalan-tzan jarri eta etorkizuna beste oinarri batzuen gaine-an eraikitzen hasteko aukera leihoa zabaldu da.

Gure Esku antolatzen ari den *Gelditu. Hausnartu. Erabaki*. solasaldi digitaletan —baita beste hainbatetan ere— ideia interesgarriak jasotzen ari gara alor anitzetako hizlarien eskutik. Gotzone Sestorain baserritarak, adibidez, azaldu du Euskal Herriak baduela gaitasuna %100ean bere burua elikatzeke, estrategia bat ondo diseinatuz gero. Kulturgintzaren ekosistemako eragileak batu eta antolatzearen garrantzia nabarmendu du Go-

tzon Barandiaran idazle eta kulturgileak. Eta Zelai Nikolas legelariak eta GEko kideak gobernantza eredu berri bat eta parte hartzerako zein erabakitzeke tresna eraginkorrak behar ditugula berretsi du. (...)

Normalitate berria txertoarekin batera etorriko dela diote. Eta nire kezka da txertoa bera ez ote den izango birusaren hedapena etetearekin batera aldaketarako beharrari oxigenoa kentzeko baliatuko duten estalkia. Horregatik, lehendik zeuden eta bitarte hone-

Txertoa bera ez ote da izango birusaren hedapena etetearekin batera aldaketarako beharrari oxigenoa kentzeko baliatuko duten estalkia

tan sortzen ari diren saretze, lankidetza eta proiektu herritarrak eta komunitarioak babestu eta indartzeak garrantzia berezia du orain, aldaketarako txertoa geureganatu eta sistemaren krisi honi errotik heltzeko. Gure sendagaia ez baita izango gaitz bakar bati aurre egiteko, gaingitu nahi ditugun epidemiei irtenbide integral eta burujabe bat emateko baizik: eskubideen murrizketa eta urraketak, autoritarismoa, desberdintasun sozialak, indarkeria matxista, ekoizpen eta kontsumo ereduak eta abar luzea.

Arazo globalei erantzun lokalak, ardura kolektiboak, eta erabaki burujabeak. Txikitik handira eta behetik gora eragiteko gaitasunean sinesten hasten garenean, orduan urrats handi bat egingo dugu herri bezala.

EKONOMIAREN MOTORRA?

Baserritarren eguna da gaurkoa, eta gero eta baserritar gutxiago diren garai hauetan, badira baserritik bizitzeko hautua egiten duten gazteak; Zizurkilen dago lehen sektoreari lotutako Fraisoro eskola.

Eneritz Maiz Etxarri

San Isidro eguna da gaur, baina inork gutxik jakingo du edo inor gutxik ospatuko du gaur egun baserritarren eguna. Urtetik urtera baserrietako ateak ixten joan dira. Baserriak eta baserritarrak desagertzen. Balore gutxi eman zaion lana izan da baserritarrena, eta sarritan, konplexu handikoa. Baina krisi garai honetan, baserritarrak inoiz baino beharrezkoagoak direla konturatzen hasi da gizartea.

Baserria lanbide izan nahi duenak, eskualdean du horretarako eskola. Zizurkilen dago Fraisoro eskola. 1898. urtetik martxan dagoen instituzioa da. Beti lehen sektoreari lotuta eman ditu saioak eta berrikuntzak ere ekarri ditu sektorerara. «Orduan ekonomiaren motorra nekazaritza zen, eta orduko agintariek formakuntza moduan bultzada eman behar zitzaiola ikusi izango zuten, eta eskola jarri zuten Zizurkilen», azaldu du Joxe Jabier Ormazabal Fraisoro eskolako idazkariak. Harrez gero, mantendu egin da lehen sektoreari lotutako eskola, eta egokitzen eta moldatzen joan dira urtez urte. Baina ekonomiaren bilakaerak bestelako jautzia emana du.

Gaur egun nekazaritza eskola da, eta Hezkuntza sailaren pean dagoen eskola publikoa da: «Hezkuntza curriculumak familiatan banatuta daude, eta guri nekazaritza familia deitzen dena egokitzen zaigu. Hor sartzen dira, noski, nekazaritzari zuzenean dagozkion zikloak, hau da, abeltzaintza, baratzezaintza eta fru-

tagintza. Baina, baita loregintza eta lore denden zikloa, eta baita, basogintza eta natura ingurunearen kudeaketaren zikloa ere».

Lehen sektoreko ikasketak hautatzen dituztenen kopuruak gorako joera duela nabarmendu du Ormazabalek: «Ikasle aldetik gorantz doa, baina beste kontu bat da ikasle horietatik zenbatek bukatzen duten ikasi duten horretan lanean. Hor, zoritxarrez marra ez da hain goranzkoa».

Baserrian jaio denak baserriko bideari eutsi izan dio, edo ez. Baina kalean jaiotako gero eta jende gehiagok ematen du lehen sektorerako jautzia. «Lehen ustiategi batetik zetozen, eta orain profil hori asko aldatzen joan da. Gaur egun esango nuke gehiengoa sektorearekin loturarik ez duen jendea dela», azaldu du, eta «ez da herri txiki edo landa eremuetako jendea, askotan, herri handi edo hirietatik datoz».

Sektore guztiek formazioa behar dutela uste du Ormazabalek, eta lehen sektoretik bizitzeko hautua egiten dutenentzat garrantzitsua dela ikasketak burutzea dio. Lehen sektorea garai batetik hona asko aldatu da. «Oinarrizko formazioa behar duzu, eta oinarri teorikoa eta praktikoa jasotzen dituzte». Praktikak eskolan egiteaz gain, lanbide heziketa antolatua dagoen moduan, ziklo bakoitzak hiru hilabete egiten ditu berak aukeratutako enpresa batean lanean.

Ikasleen gehiengoa gizonezkoa da Fraisoro eskolan, baina aldakorra dela adierazi du idazkariak: «Al-



dakorra da urtetik urtera. Normalean lorezaintzan emakumezko gehiago izaten dira, baina nekazaritzako goi mailetan gehienak gizonezkoak izan dira. Paradoxikoki, aurtan, ordea, nekazaritzako zikloan hogei ikasle ditugu eta hamaika emakumezkoak dira».

Lurralde bakoitzean ikastetxe bat dago, eta ziklo batzuk euskaraz eskaintzen dituzten bakarrak dira Fraisorokoak. Denetarik duen baserri handi bat da, eta barnetegia dute bertan; ikasle asko bertan bizi dira. «Oso lagun giro ona sortzen dute», argitzen du. «Urte askotan gogoratzen dute, eta bisitan etortzen zaizkigu».

Sektore batzuetan errazagoa dute lanean hastean, hau da, baratzezaintzan esaterako. Eta lorezaintzari dagokionean, hirugarren pertsona batentzat hasten direla lanean azaldu du Ormazabalek. Animalien ustiatoki batean zaila dela dio, eta erreleboan ikusten du arazoa Joxe Jabier Ormazabalek: «Gauzak esatea erraza da, baina erreleboan bai egin beharko litzateke zerbait, eta ez dakit nola eta zer politika hartu beharko liratekeen, errelebo hori gauzatzeko. Ustiatoki asko galtzen ari dira errelebo faltagatik. Azken urtee-

tan asko galdu dira, baina errelebo hori ez da erraza ematen».

Behar adinako preziorik ez

Lehen sektorearen etorkizunaz: «Bizirik dago, eta bizirik iraun beharko du», esan du. «Krisi honek ere erakutsi digu ezinbestekoa den sektore bat dela, baina era berean, erraza ez den sektorea da. Zergatik? Ekoizten diren produktuak merkaturatzerakoan ez dutelako behar adinako preziorik izaten». Hor, gizartearen kontzientziazio lan handi bat egin beharra dagoela uste du. «Bertako produktuak kontsumitzeko, bertakoa mantentzeko eta azken batean ekonomia hori sustatzeko».

Bertako baserritarren produktuak baloratzen direla uste du, baina horretarako «jende askok erosi behar du, eta mantendu behar du», dio, eta «prezio horiek ordaintzeko prest egon behar du, bestela, kanpoko konpetentziei aurre egitea oso zaila da». Baina era berean, argi du: «Baloratzen da, eta asko esaten da; baina gehiago erosi behar da bertakoa, eta gehiago kontsumitu behar da».

IRAGARKI LABURRAK

LAN BILA

Umeak zaintzeko edota adin guztietarako klase partikularrak emateko emakume arduratsua eskaintzen da. Interesa duenak deitu 650890329 telefonora. Leire.

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera. Iragaki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

«Espero ez genituen herritarrak ere batu dira»

AITOR JIMENEZ

IBARRAKO UDALEKO INGURUMEN ZINEGOTZIA

Arazoak izan ditzaketen baserritarrei laguntzeko sare berri bat osatzen dihardu Ibarako Udalak. Aurreikusten zutena baino herritar gehiagok eman du izena, eta larrialdi egoerak iraun bitartean, martxan jarraituko dute.

Josu Artutxa Dorronsoro

Alarma egoera dela eta, landa eremuan bizi diren baserritarrek haien jardunean izan ditzaketen beharrak bermatzeko boluntario sare berri bat osatzeari ekin zion Ibarako Udalak, martxo amaieran. Erantzun ona izan duela dio Aitor Jimenez zinegotziak; oraindik ere, izena emateko aukera dute herritarrek, 648 102 809 telefonora deituz edo *ingurugiroa@ibarra.eus* helbidera idatziz.

Zer dela eta zabaldu zenuten deialdia?

Herriguneko boluntario sarerako errazagoa zen herritarrek animatzea. Landa eremurako, baserritarren eskaera jaso genuen, eta ondoren ekin genion deialdiari. Aukera desberdinak mahai gainean jarri ondoren, argi zuten baserritarrek: beraiei lagundu ahalko zieten herritarrak nahi zituzten, sektorean noizbait arituta-koak edo aurretik ezagutza jakin bat zutenak. Herritarrak, gainera, prest azaldu ziren. Oraingoz ez dugu boluntarioen beharrik izan, Ibarran ez dagoelako Covid-19arekin gaixotutako baserritarrik. Hala ere, horrelako arazoren bat sortuz gero, irtenbideren bat emateko aukera zabal-tzea eskatzen zuten.

Zein da egitasmoaren helburua?

Baserritarrei, hauek koronabirusagatik arazoren bat izanez gero, egin ohi dituzten zaintza lanetan laguntzea da boluntarioen helburua. Kontua da, gaixorik egonez gero, etxe bereko kide guztiek berrogeialdian egon beharko

luketela, eta beraz, ukulua etxetik kanpo dagoen kasue-tan, edo ganadua mendian duten baserritarren kasue-tan, ezinezkoa litzake horiek zaintzea, ezingo luketelako etxetik atera. Horregatik sortu zen boluntario taldea.

Eta zer-nolako erantzuna izan du herritarren eskutik?

Aurreikusten genuena baino jende gehiagok eman du izena boluntario taldean. Gazte ugari ere batu zaizkigu. Guztira, dozena bat inguru izango dira, eta oraindik ere, deika dabil jendea, interesa azalduz. Ez dugu zerrenda luze bat nahi. Hobe da gutxi, baina aldi berean, konfian-tzazkoak eta eraginkorrak izatea. Hasiera batean, profil horretarako jendea nahi genuen, baina azkenean, espe-ro ez genituen herritarrak ere batu dira: baserri mun-

«Baserrian bizi eta herrigunearekin harremana dutenek, lotailu modura funtzio-natzen dute»

duan aritzen direnak edo aritu izanda-koak, eta herrigunean bizi direnak, bai-na sektorearen ezagutza dutenak. Udaletxetik ikasketak eskatuko bage-nitu, jakitun gara ate asko itxiko geni-tuela; beraz, hori alde batera utzi nahi genuen. Traktorean ibiltzen jakitea edo makineriaren maneia izatea eskatzen da. Enpresa mundutik etorritako jen-

dea ere batu da, zenbait makina erabiltzen badakitelako.

Nola funtzionatzen du boluntario sareak?

Badakigu baserri bakoitza desberdina dela, eta lan egi-teko mila modu dituztela. Hortaz, protokolo bat jarri ge-nuen martxan. Boluntarioen zerrenda duen pertsona



Aitor Jimenez Ibarrako Ingurumen zinegotzia. **ATARIA**

bat ari da koordinazio lanak egiten. Erosketa zerbitzura-ko, adibidez, zerrendako ordena mantenduz deitzen zaie boluntarioei. Baserritarrei laguntzera joateko, ordea, boluntarioek duten jakintza edo ezagutzari begiratu-ko litzaioke. Gero, boluntario bakoitza baserritarrekin kontaktuan jarriko litzake, telefonoz, eta baserritar-
rak berak azalduko lioke lanak nola egin.

Nolakoa da Ibarrako baserritarren egoera?

Denetik dago. Baserritar batzuk ez dira baserritik bizi; eraikina berrituta dute, landetxe modura jarrita. Kasu batzuetan, bertan bizi dira, baina euren lurrak beste batzuek ustiatzen dituzte. Beste batzuek, berriz, ganadua-
rekin jarraitzen dute; tartean, behi ugari dituztenak edo-
ta lauzpabost ardi besterik ez dituztenak daude.

Eta zein motako harremana dute herritarrekin?

Oro har, ona eta estua da. Geroz eta gazte gehiago bizi da landa eremuan, eta era berean, gazte horiek harre-
mana dute herrigunearekin. Bi eremuen arteko lotailu modura funtzionatzen dute. Horietako asko, gainera, gu-
rasoak ere badira, eta beraz, haurrekin batera jaisten dira herrira. Lehengo baserritarrei gehiago kostatzen zi-
tzaien herriarekin harreman hori izatea.

Tolosan, adibidez, ekoitzitakoa ez galtzeko asmoz, 'Azoka Zure Etxera' egitasmoa jarri dute martxan. Iba- rran pentsatu al duzue inoiz horrelakorik egitea?

Egia esan, ganadua-ekin ibiltzen direnekin arazoak egon daitezke, sanidade erregistroa dela eta. Hemen gehien-
goa haragitako txekorrek aritzen da. Hala ere, erraza-
goa izan zitekeen barazki eta landareekin lan egiten du-
tenekin. Horiekin hitz egin ondoren, esan ziguten euren
kabuz kudeatuko zutela eta etxetik saltzen hasiko zirela.

Noizbait pentsatu al duzue asteroko azokarik egitea?

Bi aldiz saiatu gara horrelako ekimen bat aurrera eram-
aten, bi gune desberdinetan. Erosleek, ordea, Tolosara jo-
ateko ohitura zuten. Jende gutxi ibiltzen zenez, ez zen
batere errentagarria. Aukera desberdinak aztertuz, azo-
ka berreskuratzeko asmotan gabiltza udaletik.

ATARIAn jarrita Goierri
eta Urola Kostako
Hitz egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • **Atarikideentzat:** 55€

Handia: 160€ • **Atarikideentzat:** 80€

Eskertza: 60€ • **Atarikideentzat:** 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



ANE AMUNDARAIN
BIOMEDIKUNTZAN
DOKTOREGAIA

Minbizia agertu aurretik saihesteko gai izango al zara?

Argazkiak dioen modura, gaurkoan nire tesia gertutik ukitzen duen gai batekin natorkizue. Koronabirus garaietan ere, minbiziaren ikerketan gure hondar aletxoa jartzen jarraitu nahi dugulako. Gogoratzen baduzue (seguruenik ez...), nire tesiaren helburua mieloma anizkoitzaren tratamendurako alternatiba berriak aurkitzea da. Oraindik puntu horretara iritsi ez banaiz ere (gustuko lekuan ere aldapak daudela ziurtatu dut jada) duela gutxi minbiziaren diagnostiko goiztiarrean eta tratamenduan aurrerakuntza nabarmenak ekarriko dituen lan sorta argitaratu da. Izan ere, duela hilabete pare bat Pan-Cancer proiektuaren emaitzak ezagutu ditugu, artikululu sorta mardul batean argitaratu direnak. Eta ziurtatzen dizuet konfinamendu garaietan, arratsalde gris bat baino gehiago beraien konpainian pasa ditudala, *teleana* egiten ari nintzenaren aitzakian.

Nazioarteko proiektu honetan, 38 tumore mota ezberdin pairatzen zituzten 2.600 pertsonen genoma osoak aztertu dira, orain arte tumore guzti hauetan maila molekularrean egin den ikerketarik sakonena delarik. Zehazki, ikerketa honetan gaixo bakoitzaren genoma osoa eta bere minbi-

ziaren genoma osoa konparatu dira tumore-zelula eta zelula osasuntsua ezberdintzen dituzten mutazio guztiak detektatu ahal izateko.

Honela esanda, zaila da proiektuaren dimentsioa eta konplexutasuna ulertzea. Pentsa, pertsona bakoitza 30 bilioi (bai, bilioi) zelulaz osatua dago, eta hauetako bakoitzak, bikoizten den unean, bere genoma osoa kopiatu behar du. Prozesu honetan mutazio deituriko akats aleatorioak gertatzen dira, gero gure zeluletan pilatzen doazenak. Mutazio hauetako gehienak ez dira kaltegarriak, baina proportzio txiki batek minbizia eragin dezake. Mutazio hauei *driver* (gidari) deritze, eta orokorrean zelulei hazteko abantailaren bat ematen diete, zelula osasuntsuak baino gehiago eta azkarrago haztean minbiziaren

agerpena eraginez. Darwin-en ebolutzioaren teoria hain zuzen... Beraz, ezinbestekoa da mutazio kaltegarriak identifikatzea gaixotasuna hobeto ulertu eta tratamendu eraginkorrakoak diseinatzeko.

Lan honi esker, lehen aldiz tumore mota bakoitzean gerta daitezkeen aldaketa genetiko guztiak identifikatu ahal izan dira, eta ez hori bakarrik, alterazio hauek kronologikoki ordenatu dira tumore mota

[...] Tumore mota batzuetan mutazio gidariak gaixotasuna diagnostikatu baino dezentente lehenago agertzen dira

bakoitzaren *biografia* idazteko. Izatez, analizatu diren kasuen %95ean mutazio gidaria identifikatu ahal izan da. Hau da, nahiz eta gerora minbizi kasu bakoitzaren garapena oso heterogeneoa izan daitekeen, ikerketa honek konplexutasun guzti honetan zenbait patroï errepikakor detektatzea ahalbidetu du. Eta harrigarriki, tumore mota batzuetan mutazio gidari hauek gaixotasuna diagnostikatu baino dezente lehenago agertzen direla ikusi da, etorkizunean minbiziaren tratamendurako paradigma guztiz aldatuz. Izan ere, minbizia saihestu daitekeen gaixotasuna bihur liteke pertsona osasuntsuetan mutazio gidari

hauek dituzten zelulak identifikatu eta suntsitzearekin bakarrik, gaixotasuna garatzeko aukerarik eman gabe.

Zalantzarik gabe, oraindik pauso asko eman beharra dago etorkizun ideal horretara iristeko, baina Pan-Cancer proiektuak minbiziaren genoma sakonki ezagutzeko aukera eman digu lehen aldiz. Azken finean, minbiziaren ikerketa Amerikaren aurkikuntzarekin aldera genezake: lehen bidaian Kolonek kontinente berriaren zati nimiño bat bakarrik ikusi ahal izan zuen, baina hurrengo bidaietan kontinente oso bat aurkitu zuen...



«Orain hasi naiz pixka bat faltan botatzen espedizioetako urte haiek»

Hamarkada beteko da igandean Edurne Pasaban Lizarribarrek munduko hamalau tontor altuenen zerrenda osatu zuenetik. Iraganera, orainera eta geroaldira begiratzen dio tolosarrak ondorengo elkarrizketan mendizale, ama eta hizlari gisa.

Joxemi Saizar

Hamar urte beteko dira maiatzaren 17an Edurne Pasaban Lizarribarrek (Tolosa, 1973) Sisha Pangma igo zuela, zortzimilako 14 mendietan falta zitzaion azkena. Munduko gailur handienetara iristeko hamar urte behar izan zituen eta lehen emakumea izan zen erronka hori betetzen. Goi mendizaletasunaren historian urrezko hizkiz sartu zen tolosarra. Bizitzen ari garen egoera berezian ospakizun handirik ezingo da egin, baina berarekin hitz egiteko aukera izan du ATARIA-k, lorpen hura gogoratze-ko.

Zer moduz doa itxialdia?

Ondo. Aran bailaran harrapatu gaitu. Urte erdia Eus-

kal Herrian pasatzen dut eta beste hiru-lau hilabete hemen pasatzen ditut eta hemen harrapatu gintuen itxialdiak. Ez gaude gaizki, hemen mendiak leihotik ikusten ditugu. Ondo egoten da. Eguzki ederra eta elurra etxe atarian izan ditugu egun batzuetan, tentazio handia eskiak hartu eta abiatzeko.

Max txikia zer moduz moldatzen da?

Lehen asteak ondo, baina bosgarren astetik aurrera oso gaizki, ume guztiak bezala, hiru urte bete ditu oraintxe, eromena izan da. Eskerrak azken egun hauetan atera garela. Izugarritzko aldaketa egin du, onera.

Hamar urte igaro dira azken zortzimilakoa igo zenuenetik, Sisha Pangma. Ibilbide luzea izan zen hamalau gailurrak lortu arte. Orain, hamar



urte ondoren, nola oroitzen duzu igarotako garai hura?

Oso azkar pasatu dira hamar urte hauek. Atzo bertan Sisha Pangmako gailurrean nengoela iruditzen zait. Urte hauek zeharo azkar pasa dira. Beste bizitza bat bizitu dut. Hamar urte buru-belarri aritu nintzen proiektu hartan eta gero dena aldatu eta gaur egungo bizitza beste modu batekoa da. Bi Eburne bezala egon dira. Faltan botatzen dudak gauza ere bada eta urteak pasa ahala, gehiago. Hamar urte hauek gauza asko pasa dira nire bizitzan eta orain hasten naiz pixka bat faltan botatzen espedizioetako urte haiek.

Urte bete-beteak, gorabehera askokoa, denak ez ziren berdinak izan eta espedizio mota desberdinak ezagutu-takoak: alde batetik lagunekin, bestetik jende adituarekin, TVEko 'Al filo de lo imposible'-koekin ere ibili zinen...

Zertan bereizten dira espedizio mota horiek?

Hiru etapa desberdinetan sailkatzen ditut. Alde batetik hasierakoa, Oargi mendi elkartean 1998an lehen

espedizioa antolatu genuen, adibidez, bertako bost lagun elkartuta. Elkarrekin eskalatzen genuen Alpeetan, Pirinioetan eta Euskal Herrian zehar. Zortzimilako batera joateko ilusio hori genuen, etxera lorpen hori ekartzeko. Oso oroitzapen politak ditut espedizio hartaz, Dhaulagirira izan zen. Kamisetak egin genituen, Inauterietan taberna jarri genuen eta

horrela bildu genuen dirua. Herriak babes handia eman zigun. Hori ez dugu sekula ahaztuko. Emozio hori ez da galdu, azken momentura arte eduki dut. Hortik aurrera, atzerriko jendearekin eskalatzen hasten naiz, lagunak baita ere. Eta 2003an beste etapa bat hasten da, *Al filo de*

«Duela hamar urte pentsatutako eskema betetzen ari naiz: mendiarekin harremanetan jarraitzen dut, ama izan naiz, hitzaldiak ematen ditut...»

lo imposible telebista programakoekin eskalatzen hasten naiz, oso mendizale indartsuekin: Juan Vallejo, Juanito Oiarzabal, Mikel Zabalza, Ferran Latorre...

Oso etapa polita izan zen. Eta gero, azken txanda, buru-belarri hamalau zortzimilakoak bukatzera sartzen naizenean, ordura arte ez nuelako horretan pentsatzen, 2008tik aurrera. Eta horretarako nire taldea egin nuen. Hor sartzen da nire lehengusua Asier Izagirre eta beste jende bat.

Mendizaleak aipatzen dituzu. Tarteka emakumeekin ere ibili zara mendian: Esther Sabadell, Marianne Chapuisat... Zer oroimen duzu espedizio horietatik?

Gutxi izan dira zoritxarrez. Goi mendizaletasunean ez da emakume asko izan eta gaur egun ere ez dago asko. Ez dut aukera handirik izan emakumeekin espedizioak egiteko. Egindako horiek bere berezitasuna bazuten. Neska bat izatea espediziokidea eta kanpamendu orduetan erlazio hori izatea ez da gizon batekin duzun berdina. Oroimen polita daukat. Pena sentitzen dut gehiago ez izatea.

Zortzimilakoen lasterketan sartu zinen une batean lehen emakumea izateko. Nola sartu zinen horretan?

«Dhaulagirira joateko herriak babes handia eman zigun. Hori ez dugu sekula ahaztuko»

Zortzimilako guztiak bukatu zuen emakumerik ez zegoen garaia tokatu zitzaidan bizitzeara, aukera hori izan nuen. Bagenbiltzan batzuk horren atzetik: Nieves Meroi italiarra, Gerlinde Kaltenbrunner austriarra, eta Oh Eun-Sun korearra. Komunikabideek sortutako lehia izan zen gehiago. Kirolean ematen du beti irabazle bat egon behar dela. Goi-mendizaletasunean ere bazegoen hori, ea zein zen lehena bukatzen. Ez nuen lehia edo presio handirik sentitu. Gerlinderekin edo italiarrarekin ez nuen hori sentitzen. Gerlinderekin izanda nengoen Dhaulagirin eta Broad Peaken, italiarrarekin ere bai, lagunak ginen eta antzeko momentua bizitzen ari ginen: lagunekin hasita,

urteak eskalatzen... Pausoz pauso gindoazen. Eta bat-batean, 2007 urtean, azaldu zen Koreatik etorritako emakume ezezagun bat, Himalaiako munduan inork ez zuen ezagutzen, baina oso indartsu zetorren, gehien bat espedizio oso handiak egiten, oso prestatuak, eta oso azkar egiten zortzimilakoak. Eta hor bai sortu zen lehia, argi esan behar dut, gehien bat korearraren kontra. Guk hain-

beste urtez lan egin ondoren eta ahal genuen bezala, pausoz pauso, bai italiarra, bai austriarra eta ni, eta orain Koreatik datorren neska bat, guk baino aurrekontu ehun aldiz handiagoekin... «Honek ez ditu bukatuko hamalau zortzimilakoak guk baino lehengo». Hori pentsatu genuen horretan ari ginenok. Hor bai sentitu nuen lehia bere kontra.

Orain berriz, emakumeen presentzia komunikabideetan asko gutxitu da. Nola dago gaur egun emakume alpinisten egoera?

Egia da zeharo aldatu dela. Mendizale lagunekin (Alex Txikon, Ferran Latorre) lehengoan komentatzen genuen han dena aldatu dela. Lehen espedizio asko egiten genituen, 90. hamarkadan eta 2000ko hamarkadan pentsa zenbat espedizio ateratzen ziren Euskal Herritik, ez bakarrik gureak, baizik eta Hernanitik bat, Iruñetik beste bat... Eta espedizio haietan neskak ere joaten ziren. Hori dena bat-bate-



Nepalgo haurrei eskola ematen dien fundazioa gidatzen du gaur egun.



Asier Izagirrekin, lehengusua eta konfiantza handia eman dion kidea.

an geldituta dago. Ez dira ateratzen, zailagoa delako gaur egun babesleak bilatzea. Emakume gutxiago dabil himalayismoan eta zortzimilakoetan. Bestalde, beste mendietan eta eskaladan emakume dezente daude gauza interesgarriak egiten dituztenak. Beharbada ez dute guk izan genuen ospe hori orain.

Hamar urte luze horietan zurekin ibilitako mendizale batzuk hil dira. Nola oroitzen duzu?

Azkenean mendiak bere aurpegi txarra ere erakutsi digu. Himalaian hamar urtetan ibilita, mendiak asko eman dit, lagun asko ezagutu, baina lagun asko ere galdu ditut. Hori da mendiaren alde txarrena. Momentu gogorak dira horiek, zer pentsa ematen du gertu tokatzen zaizunean, baina azkenean pentsatzen duzu bizitzan aurrera egin behar dela eta guk ere aurrera egin behar genuela.

Lasterketa hori amaituta, buelta bat eman zenion zure bizitzari beste esparru batzuetan sartuz. Nola izan da aldaketa hori?

2010aren ondoren deseskalatzea hasi zen, bertigo pixka batekin, hamar urtetan buru-belarri proiektu

batean sartuta ibili nintzelako. «Horren ondoren zer egingo dut?», galdetzen duzulako. Momentu hartan beste bi zortzimilako atera izan balira perfektoa izango litzateke guretzat, baina ez zen hala izan. Gauzak beste alde batetik begiratzea pentsatu nuen, mundu horretatik atera eta nire bizitza handik aurrera nola ikusten nuen aztertzea. Zortea izan nuen, *coaching* ikasketak egiten hasi nintzen, eta ikasketa horiek ez dira bakarrik besteentzat, norberarentzat ere balio dute. 2011n horrelako ikastaro batean arike-ta bat bazen begirada hamar urte geroago jartzea eskatzen zuena, zeure burua nola ikusten duzun pentsatzea, alegia. Horrelako eskema txiki bat, sinplea egin nuen. Mendia da nire bizitza, mendiarekin erlazionatuta jarraitu nahi dut, gustatzen zait hitzaldiak ematea eta jendea, ama izan nahi dut, hori ere argi nuen. Momentu onean etorri zen ariketa hura. Eta hori gertatu da hamar urte hauetan. Jarraitzen dut mendiarekin harremanetan, urtero joaten naiz Himalaiara nire gauzak egitera. Ama izan naiz. Eta gaur egun nire ogibidea hitzaldiak ematea dela esan

daiteke. Enpresa desberdinetan motibazioa, lan taldeak egiten, zenbait unibertsitatetan lidergo klaseak ematen ditut...

Ama izatearena aldaketa handia da goi mailako edozein kirolarirentzat, eta are gehiago mendian. Zer suposat du zure bizitzan, alde onak eta oztopoak ekarriko dituela jakinda?

Ama izatea desiratzen nuen gauza bat zen, izugarria eta oso polita da, baina egia da mendizaletasunarentzat oztopoa dela horrelako espedizioak egiteko, hilabete edo hilabete t'erdi kanpora joatea gehiago kostatzen zaizu eta arriskuaren gestioa askoz ere zailagoa da. Lehen arriskua ez zenuen ikusten, zuk bakarrik hartzen zenuen arriskua, dena zure inguruan zegoen. Orain, ume txiki batekin gauzak desberdin ikusten dituzu, eta gauzak askoz gehiago pentsatzen dituzu. Aukera batzuk izan ditut azken urte hauetan gauzak egiteko, Alex Txikonekin eta, baina egia esan erabakia hartzea asko kostatzen zait ume txiki batekin.

Nepalera joaten zarela esan duzu, Montañeros para el Himalaya fundazioarekin zerikusia du?

Duela urte batzuk sortu genuen fundazio hori, gehienbat bertako haur eta gazteei ikasketak emateko aukera sustatzeko, horrelako herrialdeetan laguntzarik onena gazteei edo umeei ikasketak izaten laguntzea da. Katmandun beste jende batekin ehun ume ditugu ikasten unibertsitatera bideratzeko. Eta duela bi urte emakume batzuekin espedizio bat egiteko aukera izan nuen, Nepalgo leku urrun batera, emakumeak oso diskriminatuta bizi dira bertan, tradizio zaharren menpean bizi dira emakumeak, *chau-padi* izeneko ohitura bat sufritzen dute: emakumeok hilerokoa izandakoan ezpuruak garela uste dute, ezin dugula beste jendearekin egon, eta etxetik bidaltzen dituzte lau egunez basora edo txabola batzuetara, eta asko hil egiten dira. Haiek ezagutzeko aukera emateko eta beraiei beste mundu bat dagoela ezagutzera emateko espedizio bat egin genuen, 2018ko udazkenean eta haren ondorioz bailara horretako emakume horiekin ari gara lanean eta zortzi



emakume gazte Katmandun ditugu ikasten. Pentsatzen dugu horrelako ohiturak gaizki daudela esanez ezin dugula hara joan, baina beraiei beste mundu bat dagoela ikusteko aukera eman behar diegu, eta ikasketak ematea da horretarako bide egokiena.

‘Ataria’-ko azken elkarrizketa hain zuzen ordukoa da, Saipal mendira joan zineteneko. Han aipatzen zenuen dokumentala eta emakumeen trekking agentzia sortzeko asmoa zenuela. Zertan da hori?

Dokumentala egin dugu eta Bilboko Mendifilm jaialdian aurkeztu genuen. Gauzak bere lekura itzultzen



Everesteko beheko kanpamenduan inor gutxi egongo da egun hauetan.

direnean gustura ekarriko nuke Tolosara. Trekking agentzia sortu baino lehen, neska horiei aurrea ikasketak eta ogibidea ematea hobe zela pentsatu eta horretan ari gara orain.

Egun hauetan bizitzen ari garen itxialdiak aldaketa asko ekarriko ditu bizimodura. Mendizaletasunean zer eragin izango du?

Handia, gauza guztietan bezala.

«Zortzimilakoetan ez, baina beste mendietan eta eskaladan emakume dezente daude gauza interesgarriak egiten dituztenak»

Orain Nepalen egon behar zuten espedizio guztiak ez daude noski, itxita dago, herrialde guztiak bezala. Ezin da bidaiatu eta espedizioak buruan dituenak aurten ezingo ditu bete. Zenbait lagunekin hortaz hitz egiten nuen, bere bizimodua hori da, espedizioak egin eta hitzaldiak ematea. Bere bizimodua akabo, beste hainbat jenderena bezala.

Bidaiazeari beldurra hartuko diogula uste duzu?

Ez diogu beldurrik hartu behar, birusa etxean ere harrapatu daitekeelako. Nepalera edo Patagoniara joateagatik lehenago ez dugu harrapatuko. Bidaiaztean hegazkin batean sartzeak arazo batzuk ditu, distantzia aldetik eta. Baina horri ere irtenbide bat bilatu beharko zaio, bestela munduko ekonomiak behera egingo du, ez delako egongo turismorik, hegazkinik eta gaizki ibiliko gara orduan. Argi daukagu beldurraekin ez garela inora joango. Errealitate bat da hau, errespetua eduki behar zaio eta horrek beldurra sor dezake, baina panikoa ez dugu eduki behar. Jakin beharko dugu bizitzen egoera honetan. Seguruena gure seme-alabek horrelako beste pandemia bat bizituko dute eta ezin dugu esan guk urte bukaeran ere berriz biziko ez dugunik. Kontuz ibili beharra dago eta luzatzen dizkiguten gomendioak errespetatu behar ditugu.

Egoerari alde positiboak bilatzen hasita, Himalaian azkenaldian zeuden jende pilaketak desagertuko dira, natura berrindartuko da, Everesteko oinarriko kanpamendua garbiago egongo da...

Oraintxe bertan Everesteko beheko kanpamenduan

beste edozein urtetan ia mila pertsona egongo lirakeke, sukaldari, mendizale, sherpa artean, eta ez da inor egongo. Horrek mendiari nola baiteko arnasa emango dio. Lauz-pabost aste etxetik atera gabe izan gara eta zenbait herrialdetan ikusi dugu animaliak kalera ateratzen. Badugu lagun bat hemen aterpe batean bizi dena eta hartza ikusi du. Izugarria da, oso ona.


Tolosa munduan zabaltzen

Munduan zehar Tolosa herriaren izena zabaldu duten pertsonai ospetsu batzuk badira. Horien artean Edurne Pasaban aurkitzen da. Zortzimilako guztiak igotzea lortu zuen lehen emakumea izateak komunikabide guztietako atea ireki zizkion. Ospe eta goraipamen horiek lortuta, non jaio eta hazi zen ez du sekula ahazten, gaur egun Donostia eta Aran bailara artean bizi bada ere.

Eskalada munduan Alpino Uzturre elkarteko ikastaro batean hasi bazen ere, «monitore eder batengatik» berak aitoritzen duenez, Oargi elkartean aurkitu zuen mendirako kuadrilla, giroa eta zaletasuna. Astebururo goizeko zortzietan Dama Berdean nola elkartzen ziren gogoratzen du, Zazpi Iturrira edo Eginora eskalatzerako joateko. Askok eskertzen du Oargiko jende helduagoaren eta esperientzia handikoaren babesa, bestela ez zelako seguruenik beste pausoak ematera ausartuko. «16-17 urte genituela 30 urte inguruko jendearekin ibiltzen ginen eta beraiei berdinez zizaien gurekin mendira joatea edo gu Pirinioetara eramatea», aipatzen du.

Lehen eskalada ikastaro hartan zegoen Asier Izagirre lehengusua eta berarekin batera eman zuen pausoa Oargira. «Hamalau urtetik aurrera ikasi ditudan gauza guztiak Asierri esker direla esan dezaket», aitoritzen du. Urte bat gehiago baka-rrik izan arren, esperientzia zuela, jende asko ezagutzen zuela eta harekin gauza interesgarriak egiten hasi zela onartzen du.

Ez du ahazten gaztetan Oargiko jende esperimintatuagoak eskalatzerako eta Pirinioetara joateko emandako aukera



Sisha Pangma, igo zuen azken zortzimilakoa, duela hamar urte.

Tolosan munduan zehar ibili den mendizale, kirolari, bidaiari asko izateak eta gaztetan giro hori ezagutzeak izan duen eragina aipatzen du eta horretaz «oso harro» sentitzen dela baieztatzen du, «inguruan erreferente asko izan dugulako». Horregatik berak egindako balentria ez omen da hain harrigarria. Azken urteotan horrelako kirolak sustatzeko sortu den

Zumardia ekimenak «inbidia eta pena» ematen diotela dio, bere semeak hori ezin duelako bizi kanpoan bizituta.

Mendi elkarrekin aipatu ditu Pasabanek eta horien garrantziaz eta etorkizunaz ere galdetzeko aprobe-txatu du ATARIA-k. Taldeen egoera oso ondo ez duela ezagutzen onartu arren, eta gorabehera handiak izaten direla jakinda, jende gaztearen falta sumatzen du, beste lehentasun

batzuk izaten dituztelako. «Elkarte batek aukera asko ematen ditu sentazio ikaragarriak bizitzeko, mundu berriak irekitzeko. Eta hori martxan jartzeko motibatuta dagoen jendea behar da, haurrekin, gazteekin... lan egiteko eta horiek erakartzeko», adierazten du.

Tolosaldeko mendi kuttunenaz galdetuta, Txindoki eta Uzturre aipatzen ditu bereziki, askotan izan delako bietan, eta orain, amarengana etortzen denean, batez ere Uzturrera joaten delako semearekin. Hilabete honetan egitekoa zen XIV Orduko Ibilaldia ere mintzagai izan dugu. Aurreko edizioan, 2016an, parte hartu zuen eta aurtengoan ere ateratzekoa zen, baina «penaz» ezingo dela izan seinalatzen du, sekulako giroa sortzen delako martxa horretan.

Tolosarekiko maitasuna eta harremana ez duela galdu ikusten da. «Niretzat beti nire etxea izango da Tolosa. Gurasoak eta anaia bertan bizi dira. Nire bikoteari askotan proposatzen diot Tolosara bizitzera joatea, hor nago borroka batean, ez dut baztertzeko azkenean etxean bukatzea berriz. Etxea etxea da, munduan ibil zaitezke, leku polit asko daude, baina etxeak bezala, eta lagunak bezala inon ez», adierazten du.

Itxialdia amaitzerako dituen proiektuak aipatzera-koan, gauza gutxi erantzun du, Nepalera 6.000 metroko mendi bat eskalatzea joateko gogo zuen, baina gauzak dauden bezala beste era batera hartu beharko direla uste du, zaila izango delako. «Hau bukatzen denean Euskal Herrira joan nahi dut, etxeak bisitatzea lehenengo gauza izango da», eranstu du. Aurtengo uda Euskal Herria eta Pirinioetan bueltak emateko aprobetxatu behar dugula dio. Eta irailetik aurrera gauzak egiteko zer aukera dagoen ikusten joan beharko dela dio, zaila izango dela jakinda. «Pausoz pauso joan behar dugu. Ez dakigu, ezin dugu gure begiak oso aurrean jarri, epe motzera begiratu behar dugu», adieraziz eta mendi tontorren batean topatzeko desioarekin agurtu da mendizale tolosarra.



Everest izan zen lortu zuen lehen zortzimilakoa.

KRONOLOGIA

- 2001. Maiatzak 23. Everest (8.848 m).**
- 2002. Maiatzak 16. Makalu (8.463 m).**
- 2002. Urriak 5. Cho Oyu (8.201 m).**
- 2003. Maiatzak 26. Lotse (8.516 m).**
- 2003. Uztailak 19. Gasherbrum II (8.035 m).**
- 2003. Uztailak 26. Gasherbrum I (8.068 m).**
- 2004. Uztailak 26. K2 (8.611 m).**
- 2005. Uztailak 20. Nanga Parbat (8.125 m).**
- 2007. Uztailak 12. Broad Peak (8.047 m).**
- 2008. Maiatzak 1. Dhaulagiri (8.167 m).**
- 2008. Urriak 5. Manaslu (8.156 m).**
- 2009. Maiatzak 18. Kanchenjunga (8.586 m).**
- 2010. Apirilak 17. Annapurna (8.091 m).**
- 2010. Maiatzak 17. Sisha Pangma (8.027 m).**



Jon Ander Artola @jartoillustrations
GERTU

Collage digitala eta pintura bezalako teknika garaikide eta tradizionalen bidez, diseinu abstraktuak eta irudi intuitiboak sortzen ditut. Natura, musika eta hiri-inguru-neak ditut inspirazio-iturri nagusi.

EMERGENCIA COVID-19 LARRIALDIA

ZAINDU KULTURA

Zeurea. Geurea. Guziona.



KULTURA DENON ARDURA

BALIOA EMAN
Ikusi. Entzun.
Zabandu. Kontsumitu.
Parte hartu. Babestu.
Guztion artean indartu behar
dugu gure kultura.



LAGUNTZA PROGRAMA

EUTSI
Kulturako profesionali beren-beregi
zuzendutako Programa, Covid-19
birusak sortu duen egoerari aurre
egiteko. Informazio guztia
lanbide.euskadi.eus webgunean.



AHOLKULARITZA ZERBITZUA

LAGUNDU
Kulturaren profesionali zuzendutako
zerbitzua, abian jarritako laguntza
eta neurrien inguruko zalantzak
argitzeko. Informazio guztia,
Kulturklik Pro atarian.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

‘Txapeo’ orokorra



ION MINTEGIAGA
‘MINDE’
LANGILEA

Xanpainaren aparretan ponposo egotetik isolamendurik zorrotzenez bizirautea pasa gara konturatzerako; eta, hein batean, oinarri bultatu gara: denda txikia, herriko harakina, baratzak, liburuak, familia mahaiaren bueltan; patxadaz. Internetaren baimenarekin.

Bada zer hausnartua, erantzunak jasotzeko beharra.

Camusen *La peste*; Soderberghen *Contagion*; edo zergatik ez, Engelsen *Naturaren dialektika*. Bizitza kontraesana baita, gu garena eta aurkakoa, bizitzan bertan denez heriotza, eta gaixotasuna, hiltzen uzten ez diguna, seinalea, gaingiduz gero indartzen gaituena, bizitzen jarraitzen laguntzen diguna.

Baina tapatuak gaude plastikotzarrez, birusarengandik babestu asmotan zimeltzen, immunitate sistema ahultzen, panazea bailitzan dioxosozko txertoa topatu artean. Eta orduan zer, baloiari ostikoa jo eta itsu-mutu-gor denok aurrera? Ez beza inork gaizki ulertu: garbitasuna, ardura, distantziak, isolatzeak. Neurrian.

Ez ginen alperrik behinola tximu itxuran, Afrika beltzeko sabanetako zuhaitzetatik jaitsi, dena hartu, dena usaindu, dena dastatuz. Geroz, pauso bat atzera eta bi aurrera Ipar Poloan, basamortuan, itsasertzean edo ibarretan, uraren inguruan lekutu eta zibilizazioak altxatzeko.

Ustekabeko astindu honek bizitzak erdigunean kokatzeko unea dela ohar-tarazi digu. Utikan amiantoak, poluzioa, erraustegiak! Sentitu kresala eta pago basoen freskura, igurtzi abereak, lokaztu eskuak, alboratu desodoranteak eta miazkatu izerdiak. Bizitza parez pare.

Ez gaude esku onetan, hor dago koxka. Mundua bi ardatz nagusitan. Ekialdea gora; mendebaldea behera. Europa zaharra zabuka. Gurean jakobino frantziarra iparraldean, Espainia beltza hegoaldean, luteranismo erreformatzailearen zantzurik ere ez sikiera, aginpide bakarra, autonomia saretua, herri azpiratua.

Alemaniar miraria diote. Ospitaletako ohe, zaintzaile, mediku, erizain, profesional bikoitza. EPlak, testak eskura. Proportzioan sei aldiz hildako gutxiago. Murrizketak, zabortege mafiosoak, tren bizkorak; edo azak bestela. Arduradunik?

Erremintak behar ditugu, herri eta klase bezala ditugun beharrak asetzeko. Burujabetza, independentzia, antolaketa eta kontrol herritarra, euskal jendartearen bizitza bere osotasunean eraikitzeko.

Ezin ahaztu sarraski espetxeetan, herri aske baten ametsetan, O fasearen azpitik urte sailetan jator, umil, bizipoz, alferrikako kexarik gabe, eusten duten burki-deak. Hurbilago sentitzen ditugu egun hauetan. Besarkada bana haiei.

Eta hiri, hagoen tokian, beste bat bihotzez, lñaki.

**Alemaniar
miraria diote.
Ospitaletako
ohe, zaintzaile,
mediku,
erizain,
profesional
bikoitza.
EPlak, testak
eskura.**



**OLATZ
PEÑAGARIKANO**

Halabeharrez

Ikasi dut halabeharrak badituela alde onak. Ikasi dut txalo zaparradak urrutira iristen direla. Ikasi dut balkoiak erakusleihu ezin hobeak direla. Ikasi dut bakarrik uste baino gehiago egon naitekeela, ene pentsamenduen lagun naizela. Ikasi dut —adituen aholkuen kontra— pijaman lan egiten, bi egun dutxatu barik egoten. Ikasi dut pantailekin adiskidetzen eta kasik *youtuber* izaten.

zela. Ikasi dut sofán mozkortzen eta ero moduan dantzatzén. Txandalean ere ondokoa zirikatzen. Ikasi dut detaile txikiez gozatzén eta bizipoz txikiak asmatzen.

Ezinbestean ikasi dut maiteenak faltan sumatzen, azal fereka baten beharra sentitzen. Lotsaz ikasi dut batzuentzat askatasuna kapritxosoa dela, eta beste batzuek miraz amesten dutela. Ikasi dut mugak lau-soak direla, gaur ni naizela eta bihar zu. Pozez ikasi dut elkartasunak kolore ugari dituela eta mila forma hartzen dituela. Irribarre bat ezin pagatuzkoa dela. Atsekabez Ikasi dut batzuk isildu egin direla entzun

Ikasi dut (...) munduak bere herio gordinenean ere bizitzea erabaki duela. Halabeharrez ikasi dut halabeharrez ikasten dugula.

Baina etsipenez ikasi dut dirua ustela dela, eta osasuna ez dela lehenesten. Ikasi dut goikoak loratzén direla eta behekoak zimeltzen. Batzuei udaberria ez zaiela iristen. Saminez ikasi dut bakardadea inoiz baino krudelagoa izan daitekeela, eta bakarrik hiltzeak gogorra behar duela.

Berandu ikasi dut dendari txikiak gehiago mires-ten, herrikoak gehiago estimatzen, zaurgarriak direnak mimatzen. Era berean ikasi dut ezer egin gabe egoten, aspertzen, isiltasuna balioesten. Harriduraz ikasi dut sormena merkea dela, etxeko tramankulu xumeena aliatu dela. Eta sukaldean moldatzen nai-

diezaiegun, eta beste batzuek isilik egotea hobe luketela. Inoiz baino argiago ikasi dut alferrikako bi-daietan galtzen garela, behar ez dugunaz inguratu-ta bizi garela, gauzak diruditenak baino sinpleago-ak direla. Konturatzerako ikasi dut lau hormen artean bizitzen, eta halatan ere ez dela ezer pasa-tzen.

Ikasi dut gure birikak bete eta munduak arnasa hartu duela. Gelditzeak aurrera egitea esan nahi duela. Munduak bere herio gordinenean ere bizitzea erabaki duela. Halabeharrez ikasi dut halabeharrez ikasten dugula.



ANDER GOIKOETXEA
'ANDRIU'

HARITUZ-EKO KIDEA

Krisia! Ze krisi?

Doinua Bretoiarena

Gauetikan goizera
ia dana itxi,
errez ohitu gerala
egin zait bitxi.
«Funtsezkoa ez bada
ez kalera jaitsi!».
Gure otzantasunaz
zenbat analisi.
Krisia! Ze krisi?
Hamaika iritzi,
ahal dala bizi,
ta egin irrintzi.
Sekula ez bihurtu
balkoi-polizi!



IKER IRIARTE
HARITUZ-EKO KIDEA

Noizbait ziren gazte

Doinua Mutil koxkor bat

Hiru marrako Adidasakin
noizbait ziren hoiek gazte
bazar guztitan ikusten ditut
kirol gehiagoren eske.
Errealista izan behar da,
eske, hori seta, eske...
Noizbait sasoia izan zenuten
baino orain ez hainbeste
zaintiratu ta lesioekin
argi ibili zaitezte.




**TXOMIN AZPIROZ
DE PEDRO**
HARITUZ-EKO KIDEA

Icebergaren punta

Doinua Nere gorputza dardarka daukat

Icebergaren punta besterik
ez da etorri zaiguna.
Covid hogeia, hogeita bata...
izango dira hurruna.
Nahiz pandemian txertoan bila
pasatu gau ta eguna.
Txertoa beti existitu da;
da bioaniztasuna!
Geronek hautsi degun artean
leial babestu gaituna.
Zein da honen erruduna?
Ta gure etorkizuna?
Ispilu batek emango digu
guzti honen erantzuna:
Gizakia da bere burua
galbidean jarri duna.





IGOR ESTANKONA
POETA

Babel desagertu zenekoa


Esan ez dugunarekin egin daiteke hiztegi bat
Babel desagertu zenekoa
Bilbotik ekarri ez dugun makailoarekin
bazkari bat ausenteena.


Eta agurtu ez ditugun hilekin
ibili ez ditugun zaldiekin
edo gure maskarekin eurekin
egin genezake basamortu bat
denborarentzat.

Baina ez etsi
ezagutuko baitugu Kahlo:
bere hezurak itzuli egin ziren.

Ez etsi, ezagutuko baitugu esnea:
goizean isuri zen
zure iztermamietan
euri begiak lez
kristaletan.

Berriro festa, apoen deia
udaren antza dauka udak:
landu gabeko
soroetan, basa-laboreak.





PASAHITZA

Postalak

Agurtzane Belauntzaran

Berrobittarraren eskutik jaso ditugu postalak, udaberria, txoriak eta zuhaitzak aitzaki hartuta.



PASAHITZA

Baserritik

Fraisoro eskola

Zizurkilgo Fraisoro nekazal eskola ezagutzeko aukera izango da Joxe Jabier Ormazabalaren eskutik.



PASAHITZA

Solasaldia

Helduak

Itxialdia nola igaro duten eta konfinamenduak zertarako balio izan duen kontatu digute solaskideek.



MINGAINA TXULORA

Autoesplorazioa

Mingaina Txulora

Autoesplorazioa landu dugu erotikari buruzko saioan, Jon Imanol Etxabe sexologoarekin. Itxialdian pornoaren kontsumoa eta gailu erotikoen salmenta igo dela ikusi dugu.



Saio guztiak hemen,
ataria.eus/irratia-n-entzungai

OSTIRALA

PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, eguneko elkarriketa, solasaldi politikoa.

ENTZUTEKO JAIOAK

12:00. Musika tarte.

ZEBRABIDEA

16:00. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

MINGAINA TXULORA

20:00. Erotika, Jon Ima-

nol Etxabe sexologoarekin.

LARUNBATA

TRIKITIA

10:00. Trikiti musika.

HAUSPO ARTEAN

12:00. Trikitiari buruzko saioa, Eneritz Aulestiak gidatuta.

KANTAZGORA

14:00. Eskualdeko musikarien proposamenekin osatutako saioa.

ENTZUTEKO JAIOAK

18:00. Musika tarte.

DJ BULL

20:00. Musika saioa, DJ Bullekin.

IGANDEA

09:00. Asteko saioen onena.

HARI NAIZELA

14:00. Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

ENTZUTEKO JAIOAK

18:00. Musika tarte.

MINGAINA TXULORA

20:00. Erotika, Jon Imanol Etxabe sexologoa.

ASTELEHENA

PASAHITZA

09:00. Eguraldia, *Postalak* bidaiarien tarte, Tolosaldea Garatzen.

AMALURRA

11:00. Ekologiari buruz.

ENTZUTEKO JAIOAK

14:00. Musika tarte.

ZEBRABIDEA

16:00. Arrosa sare.

18:00. Eguneko saioen onena.

PLAYBACK ATARIA

20:00. Musika saioa.



«Musika aukeratu nuen fisikako hainbat kontu biltzen dituelako eta gertukoa delako»

JOSU LOPEZ-GAZPIO

KIMIKAN DOKTOREA ETA IRAKASLEA

Kimikari tolosarrak bigarren aldiz jaso du CAF-Elhuyar saria. Zientzia-kazetaritzako lanen kategorian eman diote 'Musikaren zientzia' lanagatik. Zientziaren dibulgazioaren alde egiten du lan eta oraingoan ere asmatu du zientzia modu dibertigarrian lantzeko ahaleaginean.

Iñigo Terradillos Gaztañaga / Rebeca Calvo Gonzalez

CAF-Elhuyar sarietako bat jaso du Josu Lopez-Gazpio kimikariak. Zientzia-kazetaritzako lanen kategorian epaimahaiak aho batez erabaki du saria tolosarrari ematea, *Musikaren zientzia* lanarengatik. Duela bi urte Eguberrien inguruan idatzitako beste artikulua batengatik jaso zuen sari bera. Lopez-Gazpioren UEUko Galder Gonzalez kidea eta Leire Sangroniz ere saritu dituzte aurten.

Artikuluak musikaren eta zientziaren arteko erlazioa oso ongi azaltzen duela aipatu du epaimahaiak.

Gauzak ondo azalduta daude, eta musikak duen berezitasun hori ere biltzen du. Alde batetik, fisika da, eta zientziaren eta matematikaren bidez azaldu daiteke musika, uhin baten hedapena zer den azaldu daiteke alegia, baina bestetik, musikak sentimenduei eta kul-

turari lotutako alderdi hori ere badu, azaltzen ez daki-guna, eta hori ere kontuan hartu behar da.

Erakargarria eta entretenigarria dela ere esan du.

Hori ere bazen helburua eta asko eskertzen da helburua lortu dela ikusteak. Artikulua entretenitzeko dago idatzia, baita ikasteko ere, baina uhinaren hedapenaren teoria guztia azaldu ordez, hori modu dibertigarri batean kontatu nahi nuen, adibideekin eta abar, eguneroko bizitzarekin erlasionatutako gauzak kontatuz. Artikuluak bideo loturak ere baditu; soinuak eta abesti batzuk entzun daitezke, gitarra baten soken bibrazioa ere ikusi daiteke... Bideoak eta argazkiak lagun-garriak dira.

Zientziaren dibulgazioan aritzen zara, eta horrelako sariak garrantzitsuak izango dira bide horretan, ezta?



Blog batean idazten duzunean, normalean irakurleak ez du denbora asko pasatzen artikulua irakurtzen ez bazaio interesatzen behintzat; oso erraza da leihoa itxi eta beste zerbaitetara jotzea. Irakurlea lotzea lortu behar dugu, artikulua ireki eta bukaerara arte eramateko. Saritutako artikulua hau ere hiru ataletan banatu nuen, irakurketa errazteko, eta loturak daude batetik bestera. Horretaz gain, atalak egun desberdinetan argitaratu nituen.

Nola banatu duzu artikulua? Zein hiru atal landu dituzu?

Lehen atalean soinua zer den azaltzen dut. Soinua gorputz baten bibrazioarekin dago erlazionatuta eta gure entzumen aparatua gai da inguruan dauden molekulen pilaketa desberdinak antzemateko. Horregatik entzuten ditugu soinua.

Soinuak dituen ezaugarriak aipatzen ditut eta baita soinua dituen maiztasun desberdinak ere. Soka baten adibidearekin ulertu daiteke; gita-

«Teorian
infinitu soinua
posible daude,
soka batek infinitu
abiaduratan
bibratu
dezakeelako»

rra baten sokak, abiadura desberdinetan bibratu dezake eta hori sortzen den soinurekin lotzen da. Teorian infinitu soinua posible daude, soka batek infinitu abiaduratan bibratu dezakeelako.

Eta hortik bigarren atalera, beraz.

Bigarren atalean infinitu soinua daudela esaten dut, baina infinitu soinurekin oso zaila izango litzatekeela partitura bat idaztea. Musika hori arrazionalizatzeko aukera daukagula diot eta hor azaltzen direla notak, eta hor agertzen dela musika; soinua hori antolatzean, izenak jartzean, beraien arteko loturak bilatzean... hori sortzen dira notak. Musika notez hitz egiten dut atal horretan. Notak zehazteko maiztasun jakin batzuk aukeratu dira.

Maiztasunak eta maiztasunen arteko erlazio jakin batzuk betetzen dituzten soinua gustagarriak dira guretzat. Soka batek abiadura batekin bibratzen badu eta beste soka batek abiadura horren bikoitzarekin, gustagarri egingo zaigu. Horrelako erlazioen bidez armoniak osatu daitezke, soinua elkartuz abestiak egiten dira, akordeak...

Eta hori landu duzu hain justu, azken atalean...

Hirugarren atala da hori; guri zer gustatzen zaigun eta zer ez lotuta dagoela alde batetik, fisikarekin, hau da maiztasunen arteko erlazio jakin bat gehiago gustatuko zaigula, printzipioz, baina kulturak ere baduela zehazkizuna horretan. Txikitatik entzun ditugun abestiek ere eragiten dute gure gustu horietan: mendealdeko musika entzun dugunok badugu joera bat soinua jakin

batzuekiko. Esperimentuak egin izan dira beste kultura batzuetako pertsonekin eta hori ondorioztatu dute. Amazonian guztiz isolatutako pertsonak beste musika eragin batzuk izan dituzte eta ikusi da indigena horientzat atseginak direla guretzat oso desatseginak diren soinua, eta guretzat disonanteak diren soinua beraiek atsegin dituztela. Horrela ikusi daiteke

kulturak zer garrantzia duen musika ulertzeko prozesu horretan. Eragin kulturala oso garrantzitsua da.

Notak soinu mugatuak dira, beraz?

Piano baten soinuarekin oso ondo ikusi daiteke hori. Pianoak tekla batzuk ditu, nota batzuk jotzeko aukera ematen dutenak, *do* jotzen badugu eta hurrengo nota, *re*, tartean *do sostenido* edo *re bemol* izango ditugu, baina ez gehiago, ezin da jo tartean dagoen beste ezer. Baina fisikaren aldetik soinu infinituak daude tekla batetik bestera. Ezinezkoa izango litzateke partitura bat idaztea infinitu soinu horiekin, azken batean soinua jarraitua da, edozein soinu edo maiztasun jo daiteke, baina guk antolaketa bat egin dugu horietako batzuk bakarrik hartuta.

Gure entzumena ere ez da gai soinu guztiak entzuteko...

Soinuak mugagabeak dira eta notak konbinatuz lortu daitezkeen aukerak itzelak dira, baina ez mugagabeak. Eta gure entzumena ez da gai soinu guztiak entzuteko, maiztasun jakin batzuetako soinuak entzun ditzakegu, 20tik 20.000 hertzio bitarteko maiztasuna dutenak, alegia. 20 azpikoak ezin ditugu entzun eta ezta 20.000tik gorakoak ere, ultrasoinuak, alegia. Beste animalia batzuk entzun ditzakete, adibidez txakurrek.

Doinu batzuek pertsonengan sortzen dituzten erreakzioak ere osagai kulturalarekin dute zerikusia?

Eragin kulturalak, norberaren esperientziak, oroitzapenak... sentimenduen mundu hori ere sartuko da gustuen kontuan. Hor zientziak ez du horrenbeste esateko.

Zergatik idatzi duzu gai honen inguruan?

Musika nahiko eguneroko bizitzako gai bat da, lehenago ez nuen gai honetan hitz egin, eta gogoia nuen hitz egiteko. Fisika eta matematikako hainbat kontu biltzen dituelako eta aldi berean, gertukoa den gai bat



delako aukeratu nuen. Pianoa jotzen ikasten ari naiz, eta galderak sortu zitzaizkidan ere. Niri ere eguneroko bizitzak galderak planteatzen dizkit eta hau modu ona da erantzunak emateko.

Saria pandemia betean iritsi zaizu, idatzi al duzu zerbait koronabirusari buruz?

Lanen bat edo beste argitaratu dut *Zientzia Kaiera* blogean, baina ez koronabirusari buruz, birusei buruz baizik, orokorrean. Zientziaren aldetik oso goiz da orain gertatzen ari dena aztertzeko, zientziak denbora behar du, eta denbora pasa beharko da jakiteko benetan zer gertatzen ari den momentu honetan. Denbora beharko dugu hau zer den jakiteko.

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarrizketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea

Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

- Whatsapp bidez: **687 410 033**
Abestiak eskaini, zoriondu,
albisteen berri eman,
proposamenak egin, kexak....

ESKUALDEKO
EUSKARAZKO IRRATIA





IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro triste eta bustia. Egun osoz zerua estalirik mantenduko da eta euri kontuak izango dira. Goizean euri zaparra-da batzuk izango ditugu, orokorrean nahiko ahulak izango dira. Arratsaldeko lehen orduetan lasaialdix bat izango da eta ez du euririk egingo. Arratsalde erditik aurrera ordea, berriz ere euri zaparrada batzuk izango dira, tarteka mardul samarrak izan daitezke. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura oso freskoa izango da, altuenak 13-14 gradutan errendituz.

LARUNBATA


Giro bustiarekin jarraituko dugu. Ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da egun osoz eta horrekin zerua erabat estalirik mantenduko da. Hodei hauek egun osoan zehar euria ere utziko dute. Euria zaparrada ahul modura botako du, baina nahiko sarri eta giroa amorragarria izango da. Iluntze aldera zertxobait atertuko du, baina azken orduetan berriz ere euria bueltan izango da. Tenperaturak oso freskoak izaten jarraituko du eta altuenak ez dira 14-15 gradutik pasako.

IGANDEA

Giroak egonkortzera egingo du. Egunsentian hodei dezente agertuko da eta euri tantaren bat ezin da baztertu. Goizean ateri geratuko da eta ostarte batzuk irekitzen hasiko dira. Arratsaldean, nahiz eta, zeruan hodeixkaren bat edo beste azaldu, giro urdina nagusituko da. Haizeak ipar ukitua izango du egunaren lehen zatian, ipar-ekialdetik finkatuko da arratsaldean. Tenperaturak gora egingo du, 17-18 gradutan joko du goia.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORIONAK

Etxea post-it-ez betea? Hemen igandean ahaztu behar ez duzuna. Zorionak!! Primeran ospatu!!

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

MAIATZAK 15, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

MAIATZAK 16, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Rosalia Morant Barber
Zabalarreta lorategiak, 1.
943 67 38 49.

MAIATZAK 17, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. J. M. Etxebeste Elozegi.
Gernikako arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

MAIATZAK 18, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa.
Edurne Bengoetxea Aiestaran.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

MULTIÓPTICAS

Konfinamenduan pantailak
gehiago erabili dira

**Gure lehentasuna:
osasuna eta prebentzioa**

Kontsultatu argi urdinetik
babesteko lente eta ukipen
lenteen eskaintza

**Erabil ditzagun
pantailak zentzuz**

**ZURE IKUSMEN OSASUNA
ZAITZEN DUGU**



R.P.S. 175/45 I.L.G.

ORDUTEGIA

ASTELEHENA - LARUNBATA

09:30 - 13:00

16:00-20:00

Asteazken arratsaldeak itxita

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



www.multipopticas.com



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

**XVIII SAGARDO TXAPELKETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA SARIAK**



2019 IRABAZLEA

Audi Enpresan

ISURTZERIK GABEKO
ETORKIZUN BATEN ALDE
EGITEN DUGU LAN.

ARRASTORIK EZ
UZTEKO BERRITU
DUGU.

Gaztelugatxe, Bizkaia



Audi Q5 TFSIe berria

Ahalegin handia egiten dugu zero isurtze izango duen etorkizuna eraikitzeko. Berrikuntzen alde egiten dugu Audi TFSIe teknologiarri eta entxufagarria den Audi teknologia hibridoari esker, azken horrek gasolina motorra eta integratutako motor elektrikoa konbinatzen dituelarik. 40 kilometro baino gehiagoko autonomia elektrikoa duenez, gidatzeko modu eraginkor eta arduratsua eskaintzen du.

Audi TFSIe teknologia ondorengo modeloetan egongo da:

Audi Q5 TFSIe, Audi Q7 TFSIe, Audi A3 Sportback 40 e-tron, Audi A6 TFSIe, Audi A7 Sportback TFSIe eta Audi A8 SIE.

audi.es/tfsie



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi Q5 TFSIe: 220 kW (299 CV)-tik 270 kW (8367 cv)-ra. CO2 isurtze konbinatuak: 50-64 g/km (NEDC; 46-54 g/km). Kontsumo konbinatua: 17,5-20,3 kWh/100 km.